



## 2026ko ESAEREN AZALPENAK (2026-IV-25)

### 1. ABENDO BEROAK EZ DU LABORARIEN MOLTSARIK BEROTZEN

*Abendo:* abendu / *Laborari:* nekazari / *Moltsa:* poltsa, diru-zorro  
Dena bere garaian etorri behar da... Abenduak hotza ekartzen du berekin, eta gure inguruko natura horretarako prestatuta dago, ez besterako. Beraz, abenduan bero egiten badu, den-dena aldrebesten da eta baserritarra ezin pozik egon... Imajinatu, adibidez, Kanarietan 10 °C dutela Aste Santuan... Orduan, hango hotelen jabeak ez lirateke poztuko, ezta? Bada, horixe: dena bere garaian etorri behar da, ez lehenago ezta geroago ere, gure Esaera Zaharren Txapelketa —hemendik aurrera, EZT— bezala (martxoaren hasieran, edo erdialdean, edo amaieran, edo apirilean, edo maiatzean...).

### 2. ABERATSAK ERE HIL-MIHISE BAKARRA ASKI

*Hil-mihise:* mortaja, vestidura de los muertos; suaire, linceul  
Ezer gabe jaiotzen gara, eta ezin dugu ezer eraman mundu hau uzten dugunean... Beste modu batean, espiritua dugu ondare bakar mundura jaiotzean (gehienok, ez naiz ausartzen orokortzen), eta hori besterik ez da gurekin joango hemendik irtetea, ez dirurik, ez ezer. Egia da zenbait kulturatan ohitura dela hilotzak beztitzea, zerbait arinekin (normalean, zerbait merkea); judutarrek, adibidez, hil-mihisea erabiltzen zuten sistematikoki (hori omen da Turingo maindire santua: hiltzean, Kristoren gorpua bildu zuen izara). Bada, esan bezala, hil-mihise bakarra behar izaten du edozein hildakok, gehiagorik ez (beste guztia, nola ez, ondorengoek jasoko dute herentzian, baina hori beste istorio bat da...).

### 3. ABOGADUEK EZBAIERI INDERRA

*Ezbai:* eztabaida / *Inder:* indar  
Ez daukat ezer abokatuen aurka, baina... (lagun kazetari batek behin esan zidan moduan, "baina" baten aurretik esaten den guztiak ez du ezertarako balio), ... baina onartu behar dugu epaiketarik gabe legegizonen eta legemakumeen\* arraza urte gutxiren buruan desagertuko litzatekeela, janik-ezagatik. Izan ere, nondik bizi dira Zuzenbidean lizentziatuak, beste guztion borroketatik ez bada? Beraz, edozein abokatu saiatuko da desadostasunak epaitegietara eramaten, gero bere faktura aurkeztu ahal izateko. Ez aspaldi, kasu hau entzun genuen: pertsona batek (hemendik aurrera, E(roslea)) bigarren eskuko auto baten iragarkia ikusi zuen, eta prezioa galdetu zuen: 1000 €; orduan, saltzaileak (S) esan zion diru-premian zebilela, eta mesedez transferentzia bat berehala egiteko eskatu. Ek hala egin zuen, baina egun batzuetara salerosketaz damutu eta Sri eskatu zion dirua itzultzeko. Ez dakigu zergatik, Sk uko egin zion eskaera horri... Orduan, E laguntza bila joan zitzaion aspaldiko ezagun bati, Ari (abokatua bera, bai). Handik aste pare batera, Ak zera esan zion Eri: "Ikertu dut zure kasua,

serio ikertu ere; zuk egin zenuenez atzera operazioan, ezin izango duzu dirua berreskuratu; a, ia ahaztu zait: nire lan eskergaren truk, 700 € zor didazu...”.

\* Onartuko ahal zaigu neologismo parekide hau!

#### 4. AGINDU BAJAKON, EZ ZAUEN EGINGO

*Bajakon*: bazitzaion / *zauen*: zuen, zukeen

Pertsona batzuk oso burugogorak dira, eta ez zaie gustatzen inork ezer agintzea haiei; horregatik, edozer eskatuta ere, ezetz esango dute beti.

Halere, gerta daiteke euren kabuz egitea gauzak (batzuetan, eskatu zaizkien eta haiek ukatu dituzten gauza horiek berberak), nahi dutelako edo sudur\*-puntan jartzen zaielako. Adibide bat jartzearen, azalpen hauek aipa daitezke: txapelketako inork (izan antolaketako kide, parte-hartzaile, epaile edo ikusle), eskatu balu (edo iradoki) azalpen-zerrenda bat prestatzeko urtero-urtero, erantzuna honelako zerbait izango zatekeen: “Erotuta hago??? Hik badakik/n zelako lana den ehun, EHUN!, esaera zaharren azalpenak idaztea??? Hoa pikutara, tonto/tuntun halakoa, eta eman bakea behingoz! Bururatzea ere halako astakeria bat!”. Baina ideia gurea izan zenez, inork eskatzeke, hemen dituzue azalpenok... *Enfin...*

\* irakurleak aukera beza giza anatomiaren bere atalik gustukoena

#### 5. AHARRAUSIA AHORIK AHO, KATAMIXARRA PAGORIK PAGO

*Aharrausia*: nahi gabe egiten den aho-zabaltzea, loguraren, gosearen edo gorputzeko ondoreen baten ezaugarri dena / *Katamixarra*: katagorria, urtxintxa (*Sciuridae* familiako ugaztunak)

Esaldi ustez faltsu batek dio erromatarren garaian hainbeste baso zegoela Iberian penintsulan, non katamixar batek penintsula puntatik puntara zeharka zezakeen lurra ukitu gabe, adarrez adar. Horrek badu zerikusirik esaerarekin? Ez, baina kontatu nahi izan dut.

Harira: nahiko da inor aharrausika hastea, inguruko denak bide beretik segi dezaten. Hala, aharrausiek urtxintxen abiadura hartzen dute: atoan zabaltzen dira. Momentuz ez dago ikerketa nahikorik katagorrien eta aharrausien lastertasun erreala erkatzeko, baina dena iritsiko da (nahikoa da erakunderen batek horretarako dirulaguntza ematea).

#### 6. AKATSIK GABEKO LAGUNA, AURKITU EZIN DUGUNA

*Akats*: huts, hutsune, gabezia

Amets polita da pentsatzea gizaki guztiak onak direla; are ederragoa da ziurtzat jotzea gure lagunak oro ganorazkoak direla... Baina ez gaitezen engaina: jende guztia ez da guztiz ona, ezta gure lagunak ere (estatistika kontra dago).

ABISUA: hemendik aurrera atal autobiografikoa dator, sentitzen dugu.

Nik (“azalpengile” batek), adibidez, ez dakit zenbat aldiz sartu dudana hanka lagunekin (erantzun txarren bat, keinu desegokiren bat...); beraz, ni behintzat oso kontziente naiz ez naizela “akatsik gabeko laguna”... Adiskideek barkatuko ahal didate!

#### 7. ALABA EDERRAK HAURRIDE POLITAK ITSUSTEN

*Haurride*: anai-arrebak / *Itsustu*: itsusi bihurtu

Egia da edertasuna kontu subjektiboa izaten dela (gogoratu, adibidez, "Eder edo itsusi, zein begik ikusi" esaera); halere, badago beste faktore garrantzitsu bat: konparazioa (horregatik esan ohi da konparazioak gorrotagarriak direla). Hala, dena izan daiteke polita edo ona, zerekin erkatzen dugun: niri supermerkatuko otarrainxkak gustatu arren, nahiago izango ditut Palamóseko ganba gorriak eta/edo Huelvako ganba zuriak... Jende askok (bueno, batzuek; tira, baten batek) etorri nahi du gure EZTra, baina beharbada ETBren Mihiluzera joango lirateke lehenago, aukerarik izanez gero, haren glamourrarenengatik (eta sariengatik, eta aurkezleengatik, eta ospeagatik, eta oihartzun sozialarengatik, eta...).

#### 8. ALDI JOANA EZ DA ITZULTZEN

*Aldi*: denbora, garai / *Joana*: joan dena

Gogoratzen duzue gaztetan (edo umetan) inoiz zoriontsuak izan zinetela? Lasai, garai hori ez da bueltatuko. Gogoan duzue inoiz zerbait irabazi zenutela (berdin dio ipuin-lehiaketa, hitz gezidunen lehiaketa edo Esaera Zaharren Txapelketa)? Lasai, oso gaitza da mirariak errepikatzea... Iragana iragan da\*, eta ezin da atzera egin denboran\*\*. Pena al da? Norberak nolako iragana izan duen.

\* Sinesgaitza da, baina hortik dator berba.

\*\* H.G. Wells-en "The Time Machine" (*Denboraren makina*, 1895) zientzia-fikziozko eleberri bat baino ez da, aizue...

#### 9. ARRAIN TRUFATIA, AMIAK ATZEMAITEN

*Trufatia*: Burla egiten duena / *Amia*: amua / *Atzemaiten*: atzematen, harrapatzen  
Edozein bizidun zentzudunek biziraupena du helburu nagusi. Senak (instintuak) esan ohi digu zer den arriskutsua eta, beraz, ekiditeko modukoa. Arriskuei barre egiten badiegu, bromatan hartzen baditugu (alegia, arrainak kasu egiten ez badio amuari), baliteke tranpan erortzea eta kalte handia jasatea. Labur esanda: ez hartu txantxetan benetako perilak, edo damutuko zara (adibidez, zenbat gazte jausi ziren, 80ko hamarkadako Euskal Herrian, heroinaren sarean, jolas ludikoa zela pentsatuta —bestelako konnotazio politikoetan sakondu gabe—?). Serio jarrita, zenbat pertsona traumatizatu dira EZTn, erantzun egokia ez jakitearren (sarri susmatu ere ez egitearren)? Kontu serioak serio hartu behar dira, kontxo!

#### 10. ASKO DEZAKE ESKUAK, BAINO GEHIAGO BURUAK

*Dezake*: ahal du / *Baino*: baina

Gauza asko egin ahal ditugu eskuz zein eskuarekin (bakoitzak pentsa ditzala bere gustukoenak), ados; baina askoz gehiago egin daitezke buruz, buruaz zein buruarekin, buruan hainbat trebetasun ditugulako (gehienok, behintzat): irudimena (batzuek), fantasia, gogoia, ametsak, memoria (gero eta gutxiago), moralaren kontzeptua (gehienok-edo), sentimenduak (askok), damuak (batzuek), ilusioak, inspirazioa...

#### 11. ASTO BATARI BUZTANA KEN, BERTZEARI EZAR

*Ken*: kendu / *Bertzeari*: besteari / *Ezar*: ezarri, ipini

Esfortzuak etekina eman behar du trukean; bestela, ez saiatu ezertan. Nire etxea nahiko iluna da: kale artean dago, bigarren solairuan, eraikin altuen artean, eta eguzkiaren argia ia ez da iristen bertara, ordu jakin batzuetan izan ezik. Argindarrean gutxiago gastatzeko, leihoak zabalduko banitu horma ia osoa kenduta, baliteke bizitoki alaiagoa lortzea, baina badakit sekula ez nukeela

inbertsioa berreskuratuko... Gure ekintzek fruitua eman behar dute; bestela, zertarako nekatu? (Baten bat hasi bada pentsatzen ea zein fruitu ematen duen EZTk, berak erabaki dezala ea merezi duen)

#### 12. AUZO ON DUENAK BEGI LO ON

*Begi*: egin beza

Lasaitasuna funtsezkoa da bizitzeko, eta benetan inportantea zaigu ondo lo egiteko. Auzo onak dituenak badaki zer den trankil egotea, istilurik gutxi eta laguntza handia izango duelako; aitzitik, jende onaren ondoan bizi ez garenok (h)ondo ezagutzen dugu bizitzaren alderdi mingotsa. Zuk baduzu auzokide onik, ala betzuloak erakusten dituzu zoazen lekura zoazela?

#### 13. BAIGORRIKO BAXERA URREZ, HARAT ETA LURREZ

*Baxera*: jateko eta janariak mahairatzeko erabiltzen den plater- eta ontzi-multzoa / *harat*: hara

Bada antzeko beste esaera bat: "Urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau". Zera esan nahi du: kanpotik, gauzek itxura ederra edukitzen dute, hara doanaren ametsak tarteko. Turismoa egin duen edonork arrazoia emango digu: konparatu zer agertzen den hotelen propagandan, eta benetan nolakoak izaten diren...

#### 14. BAKEAN DAGOENARI BAKEAN UTZI

Baten bat lasai badago, patxada ederrean, zertarako hasiko zatzaizkio molestatzen? Utzi bakean, ezer txarrik ez dizu egin eta! Adibidez, esaera hauetakoa bat ulertu ez baduzu (bakarra bada, gaitz erdi!), galdetu euskaltegiko irakasleari, koinatuari/koinatari, lagun euskaltzainari, baserriko amamari, gotzainaren idazkariari edo ChatGTPri, baina ezta bururatu ere gureegana jotzea, guk nahiko egin baitugu jada!

#### 15. BAPEZ BAINO, BERANDU HOBIA!

*Bapez*: bat ere ez, ezer ere ez / *Hobia*: hobe

Zerk du garrantzi handiagoa: zerbait arin egiteak ala ekintza horren emaitzak? Bada, atsotitz honen arabera, ez dio axola itxaron behar izateak, baldin eta azkenean onura apur bat jasotzen badugu. 53 urte, 5 hil eta 23 egun eman badituzu loterian jokatzeko (alegia, 1972ko urriaren 10etik gaur egun arte\*), eta azkenean 120 €-ko *pedrea*\*\* tokatzen bazaizu, bada zerbait, ezta? Gaztelaniaz esaten d(ut)en moduan, *Más vale tarde que nunca*.

\* Eta gero baten batek esango du azalpen hauek ez direla zehatzak...

\*\* Elhuyar Hiztegiaren arabera, "sari txiki" (hori bai ez dela zehatza...)

#### 16. BARDIN BURGOS ETA MARKINA

*Bardin*: berdin / *Burgos*: Gaztelako hiria, izen bereko probintzian

Maitasuna oso ondo dago; harrotasuna, zer esanik ez; nor bere ingurua errespetatzea logikoa eta miresgarria da; jakina, geurearen alde egitea beti da ona... Baina hortik —ezezagutzagatik edo harropuzkeriarengatik, berdin dio— errealitatea desitxuratzerara tarte handia (erraldoia) dago. Nori otu zitzaion, inoiz, Burgos eta Markina konparatzea\*? Datu bakarra emango dizuet (*Ulerle onari, berba gitxi*): 1534 aldera, Burgosen katedral gotiko bat eta 4700 bat etxe zeuden; Markinan, 1704an, 185 pertsona bizi ziren (eta katedralik ez, jakina). Alde galanta, ezta?

\* Markinar bati (ia seguru gaude)

#### 17. BEDAR TXARRA BEREZ AGERTZEN DA

*Bedar*: belar / *Berez*: bere kabuz, laguntzarik gabe

Gauza onak (maitasuna, dirua, begirunea, umorea, erosotasuna, autoestimua, edertasuna, euskal gastronomia, bikotekide egokia, gozotasuna, sexua, osasuna, azalpen hauek...) bilatu egin behar dira; kontu txarrak, aldiz, berez etortzen zaizkigu, deitu edo xerkatu gabe, trukean ezertxo ere eskatu barik. Zergatik? Galdera hori filosofiari dagokio, ez guri.

#### 18. BERANDU JOANEZ GERO, BERANDU ETORRI

Denak du bere erritmoa, eta zaila da aldatzea. Demagun zuk normalean 37' 5" (37 minutu eta 5 segundo) behar izaten dituzula, batez beste, erosketak egiteko. Hala, gaur 10:00etan kaleratu bazara\*, printzipioz 10:37an izango zara bueltan; bihar, dena delakoarengatik\*\*, 11:30ean irteten bazara, ez zara itzuliko 12:07ra arte. Matematika hutsa da, aizu!

\* Adibiderako, suposatuko dugu (hala nahi dugulako) auzoan erosten duzula, ez Amazon (Prime) bidez.

\*\* Gu ez gara inor zure alferkeria kritikatzeko, argi gera bedi.

#### 19. BERBAK ONAK, BAIÑE ARTUE MALETAN

*Berbak*: hitzak / *Baiñe*: baina / *Artue*: artoa

Kontraste handia egoten da hitzen (kontu ukiezin edo teorikoak) eta ekintzen (errealitate ukigarri edo praktikoak) artean. Normalean, gehiago agintzen dugu, eman baino (azken ikerketen arabera, 1/2346,5 proportzioan, gutxi gorabehera, urtaroaren, generoaren, haize-abiaduraren eta hezetan mailaren arabera). Jator-plantak egiteko, komeni zaigunean berba dotore-atseginak botatzen ditugu, baina, ahal dela, gure ondaretik ezertxo ere askatu gabe. Egia da, irakurle zoli hori, gaur egun inork ez duela artorik eramaten maletan (askotan, ezta maleta ere), baina hori bigarren mailako kontua da orain.

#### 20. BERBOK EDER AHOAN, KORAPILOA GOLKOAN

*Berbok*: hitzok, hitz hauek / *Golko*: kolko, pertsona baten barnea edo gogoa  
Zerbait kulturala da: herri batzuetan, erraztasuna dute penak kontatzeko, barrenak husteko; beste batzuetan, aldiz, nekezagoa da, eta kontrako joera egoten da: nork bere samina ezkututzen du, disimuluan. Baliteke euskaldunok (ez denok, baina hainbat) bigarren mota horretakoak izatea: "kanpoeder", pozik, agertu arren gizartean, barruan gorde ohi dugu nahigabea. Gaztelaniaz, esan ohi den moduan, *La procesión va por dentro*. Horrelako zenbat dago gure artean?

#### 21. BERTZEREN DIRUAZ DUENAK ETXEA BERRITZEN, ETXE ZAHARRA ETA BERRIA DITU BAHITZEN

*Bertzeren*: besteren, besteen / *Bahitu*: hipotekatu

Labur esanda, ez gastatu ahal duzun baino gehiago; zure ahalmenaren gainetik bazabiltza, zorrak egingo dituzu, eta batek daki noiz ordaindu ahal izango dituzun... Pobrea bazara, izorra... (barkatu, *gogait* zaitez) eta egokitu gastuak zeure diru-sarreretara, besteok (jende ondratua) molestatu gabe, nahikoa baitugu geure arazoekin (barkatu egia esatea). A, eta etxea berritu behar baduzu eta zure ohiko bankuak (zerbaitengatik) ez badizu dirua uzten, eta online mailegu-konpainia batera jotzen baduzu (60.000 € arte eskaintzen dituzte, minutu batzuetan eta etxetik mugitu gabe), eta nahi duzun dirua lortzen baduzu

erraz, baina epea heltzen denean ezin baduzu itzuli, orduan bi kontu gertatuko dira: a) gu madarikatuko gaituzu horrelako aholkuak emateagatik, eta b) egiaztatuko duzu atsotitz honek egia biribila dioela.

## 22. BESTEEN BEHARREAN DAGONA, BETI GAIZKI

*Dagona*: dagoena

Guztia besteek ematea nahi baduzu, gaizki ibiliko zara, oro har gizakiok ez gara eta zintzoak eta eskuzabalak eta atseginak eta bihotz onekoak. Besteoi eskatu barik, hobe ahal duzuna eginez bizitzea. Azken batean, horixe da kapitalismoaren mamia, ezta? Tira, barka biezadate ezkerreko irakurleek, baldin eta horrelakorik geratzen bada oraindik gure artean.

## 23. BI ESKEINTZIA ERREZAO, BAT EMATIA BAINO

*Eskeintzia*: eskaintzea / *Errezao*: errazago / *Ematia*: ematea

Behar izanez gero, esaera honen inguruko azalpen luze bezain interesgarria emango dizuegu. Bidali eskaera hona: [esaera.zaharrak@aek.eus](mailto:esaera.zaharrak@aek.eus). Azalpenarekin batera, adibide edo anekdota esanguratsuren bat ere joango zaizue. Hala, idatzi. (azalpena 2024koa da; 2025eko martxoaren hasieran, inork ere ez du idatzi... Horixe da egiten diguzuen kasua, alproja horiek!)

## 24. BIBOA USTE, ETA BABOA IZAN

*Bibo*: gaztelaniazko "vivo" (bizkor, azkar, argi) / *Babo*: ergela

Autopertzepzioa zer den! Batzuek uste dute badirela oso argiak, azkarrak, jakitunak (intelektualak, ia), sakonak eta adimen handikoak... baina, egiatan, tontoak dira, baboak.

Zuk, irakurle, pentsa dezakezu horixe bera gertatzen zaiela lerro hauen egileei. Baliteke, baina ez ote da zeure kasua ere? Ondo hausnartu horretaz...

## 25. BORTXAKO LAN, TXARRA

*Bortxako*: bortxazkoa, behartua, gogoz kontra

Nahi gabe, gogoz kontra, behartuta, norbaitek aginduta egiten diren lanak eskasak izaten dira. Hala, antzinako (eta gaur egungo) sistema ekonomiko esklabistak nahiko errendimendu baxua ematen zuen, esklaboek —batek daki zergatik— ez baitzuten lan egiten ganoraz. Horregatik pasatu omen zen, Europan, sistema feudalera, non nekazariek etekinen zati bat jasotzen zuten (erdia-edo).

Orain, irakurle adimentsua, gai zinateke esateko ea azalpen hauek guztiak prestatzeko lana (azken letraraino) bortxazkoa den?

## 26. DABILENAK ZEOZER EKARTZEN DU ETXERA

*Zeozer*: zer edo zer, zerbait

Gogoratzen duzue eskolako Historia irakasgai inoiz agertzen zen kontzeptu hau: "gizarte ehiztari-biltzailea"? Paleolitoko ekonomia nagusia zen (gaur egun ere badirau leku jakin batzuetan), eta oso oinarri sinplea zuen: bizitzeko, jateko zerbait ekarri behar zen etxera (edo leizera, berdin dio).

Horretaz ari zaigu esaera: etxean geldi dagoenak ez du ezer lortzen; baina, sofatik altxatuta, mugitzen denak, agian zerbait eskuratu eta ekarriko du etxera. Adibidez, 2025eko apirilaren 5ean etxean geratzen denak zer egingo du, denbora alferrik gastatzea ez bada? Aitzitik, egun horretan Sopelara datorrenak sari handiak jadets\* litzake, ederto pasatuko du, jende ezin atseginagoa ezagutuko du eta are gehiago maiteko ditu euskara, esaera zaharrak, euskal musika eta

bertsolaritza. Dena den, badaezpada ere, ez irakurri orain 18. esaera.

\* lortu (zertarako daude hiztegiak?)

## 27. DAGOENEAN PAR-PAR, EZ DAGOENEAN NEGAR

*Par-par*: barrearen onomatopeia, kar-kar (*ija, ja!*)

nahi duguna lortzen dugunean, pozik gaude (barre egiten dugu); nahi duguna lortzen ez dugunean, triste gaude (negar egiten dugu).

Ez zenuten uste gai ginenik azalpen laburrak emateko, e?\*

\* kar-kar-kar!

## 28. DEBRUAK EZIN EGINA EMAZTEKIAK EGITEN

*Debru*: deabrua / *Emazteki*: emakume

Deabruak dena egin omen dezake\*; azken batean, judutarren mitologiaren arabera, Jainkoaren bigarrena zen, oso-oso boteretsua, harik eta nagusiaren aurka matxinatu zen arte. Hala ere, emakumeak are jakintsu, saiatu, temati, ausart eta gogorrangoak izaten dira, gehienak behintzat. Horregatik (ere) gustatzen zaizkio azalpen hauen sortzaileari, dena onartzen hasita.

\*Ikusi, bestela, zer eskaini zion Jesukristori basamortuan (Mateo 4, 1-11; Markos 1, 12-13; eta Lukas 4, 1-13): dena eta gehiago. Maiz pentsatu dut nik, Jesusen tokian, guztia (edo erdia, gutxienez) onartuko niola...

## 29. DEGUN GUTXI, DEGUN BETI

Degun: dugun, dezagun, eduki dezagun

Gutxi bada ere, izan dezagun beti zerbait. Kontua ez da gauza asko edukitzea (edo bai, nola ikusten den), ezpada sekula faltan ez egotea. Horregatik, aurreikus ezazue zer beharko duzuen (barkatu, nahi gabe aurreikuspen-plan baten iragarkia atera zait), ez gastatu gehiegi, eta beti izango duzue nahikoa bizirauteko-edo, baldin eta hori bada zuen asmoa. Ikus dezakezuen, antzinako euskaldunak aski kontserbadoreak ziren; oraingoak ere? Hori beste kontu bat da...

## 30. DENPOREAK AGERTUKO DAU EDURRA MENDIAN

*Denporeak*: denborak / *Dau*: du / *Edurra*: elurra

Orain estalian dagoen errealitatea ere, ikusten ez dena, denboraz jakitera helduko da; laster edo berandu, egunak (edo urteak) joan ahala, denak hartzen du bere benetako neurria. Orain dela gutxi, adibidez, jakin dugu Juan Karlos I.a Borboikoa heroia izan zela 1983ko otsailean eta Espainiako demokrazia (barkatu oximorona) salbatu zuela inboluzionismotik... (bueno, beharbada ez da adibiderik onena, behintzat militar altxatuei sinestera). Saiatuko naiz berriro: Francisco Franco (Juan Karlosen "aita ponteko" politikoa) diktadore gisa hil zen 1975eko azaroan; gaur egun, baina, espainiarren % 21,3k uste dute haren erregimena "ona" edo "oso ona" izan zela. Ai, oraingoan ere ez dut asmatu! Gaur ez da nire eguna...

## 31. DIRU SOINUA GORREK ERE ENTZUTEN

Itxura guztien arabera, diruak mugiarazten du mundua, eta edonor dago/gaude haren mende. Badakigu jendeak sariengatik (eta ez beste ezerengatik) ematen duela izena gure lehiaketan, ez euskaltzaletasunarengatik edo atsotitzak eta

ahozko euskal kultura sustatzearen... Tira, hori gure samina da, zuek ez duzue zertan jakin; isil gaitezen, beraz.

### 32. EGARRI EZ DEN ASTOARI ZEINEK EDANARAZI

*Edanarazi*: edatera behartu

Zaila da inor behartzea nahi ez duen zerbait egitera; are zailagoa, bestea burugogorra denean (eta astoek fama hori dute). Antzeko zerbait gertatzen da gure lehiaketan: nekez lortuko dute parte-hartzaileek gure epaile zintzo eta ondradu batek ontzat ematea erantzun txarren bat...

### 33. EGINETIK ZERBAIT, EZ EGINETIK EZER EZ

*Eginetik*: de lo hecho; de ce qui a été fait

Bi azalpen prestatu ditugu oraingoan, zein baino zein argiagoa:

a) 2026-III-05, 17:38 → esfortzua egiten dugunean, hori bada zerbait, gutxi izanda ere. Esfortzu faltaren ondorioa, ostera, ezereza da.

b) 2026-III-06, 02:17 → Uf! Ohera noa...

Bietatik, zeinek eman dizue argitasun handiagoa? (Erantzuna "batek ere ez" bada, boikot-tzat hartuko dugu, jakizue)

### 34. EGUR ESKARMENTADUEK SUBEGIN ONA

*Eskarmentadu*: eskarmentatu, eskarmentua duena / *Subegin*: subin, sugin, sugarri

Egur zaharra hobea da sua elikatzeko. Hau da, gizakion eremuan, asko dakien pertsonak (esperientzia zabala duelako), asko eman dezake eta asko ematen du, badu-eta jakituria nahikoa besteekin partekatzeko. Lasai, azalpen hau ez da autobiografikoa, edo ez du izan nahi (izan).

### 35. ELTZE HANDIARI, SU HAUNDIA

*Eltze*: lapiko, pertza

Den-denak ditu aurkia eta ifrentzua. Laponian biziko banintz, dirutza gastatuko nuke berogailua pagatzeko; Arabiar Emirerri Batuetan, aire girotuan; Japonian, etxeak garestiak omen dira lurrikaren kontra prestatuta daudelako; Madrilan, kapitalismoaren logika ekonomikoarengatik: eskari handia eta eskaintza murrizta (besteak beste); Mexiko Hirian ez omen dago kalera irteterik, gauez, bizkartzainik gabe; Kanadako iparraldean, hartzak dira traba (baita geu ere haientzat)... Alegia, denak du arazoren bat abantailekin batera... Horregatik, eltze handia erosten badugu (janaria prestatu behar dugulako jende askorentzat, ziur aski), sua ere tamaina berekoa izan beharko da (eta, beraz, garestiagoa); bestela, alferrik ibiliko gara.

### 36. ERAKUTSIZ GERO, HARTZAK DANTZA

Dena ikas daiteke (edo ia dena), eta denok ikas dezakegu (edo ia denok), ondo irakatsiz gero; alegia, ezagutza guztiak (edo gehienak) transmiti ahal zaizkie pertsona guztiei (edo gehienei). Irakasle on batekin, hartzak dantzan ikas dezake; azalpen on batzuekin, zuek —baita zeuek ere!— atsotitzak uler ditzakezue... Bueno, batzuen eta besteen trebetasunak kontuan hartuta, agian hartzak errazago du, ez dakit.

### 37. ERORIZ ZAZPI ALDIZ IKASTEN DA ZALDIZ

Zaldiz ibiltzen ikasteko (eta bizitzako beste zenbait arlotan), beharrezkoa da hainbat aldiz erortzea (hau da, hasieran txarto egitea). Inork ikasi al du igeri egiten, txirringaz ibiltzen, jendaurrean mintzatzeko, ligatzen... lehenengo aldian? Ez, ezta?

#### 38. EROSLEA, PAILLU BILA

*Paillu*: akats, huts (fallo; faute)

Erosleak, normalean, merke erostea du helburu; eta zein da produktuak merkatzeko bidea? Bada, akatsak ("falloak") dituztela egiaztatzea. Hori betidanik izan da horrela: "Itxuraz, sagar hauek gaur jan behar dira; merkeago jarriko dizkidazu, ezta?". Horregatik, denda handietan % 20ko edo % 30eko deskontuez eskaintzen dituzte iraungizetik gertu dauden jakiak.

#### 39. ERROSARIOA ESKUAN ETA DEABRUA KOLKOAN

Gazteentzako (eta ateoentzako) oharra: "errosarioa" (edo Euskaltzaindiak dioen moduan, arrosarioa) otoitz katoliko bat da, nahiko luzea, Ama Birjinari eskainia. Horrez gain, otoitz hori errezatzeko erabiltzen den sokatxo edo katetxo itxi aleduna da. Bada, antzina, pertsona batzuek, on-plantak egiteko, arrosarioa eramaten zuten bistan, jendeak erlijiosotzat har zitzan (nahiz eta federik batere ez izan). Antzeko zerbait pasatzen da, egun, euskararekin ere: Euskaraldiko txapa (ahobizi edo belarriprest) edo Korrikaren pina daramaten askok oso gutxitan egiten dute euskaraz, baina euskaltzale-itxura eman nahi dute, modakoa delakoan. Irakurle, zu horrelakoa bazara\*, EZTk maitasun handiz gonbidatzen zaitu hausnarketa sakona egitera.

\* Ez behin, ez bitan, erdaraz harrapatu ditugu EZTko hainbat parte-hartzaile; badakigu zertaz ari garen, beraz.

#### 40. ESKATU BARIK, EZ EMON KONTSEJURIK

*Barik*: gabe / *Kontseju*: aholku

Irakurle, zure hobe-beharrez, ez irakurri azalpen hau. Ez horregatik, majo/maja!

#### 41. ESPOSAK ANDREA, EZ BEGITARTEA

*Esposak*: esposa ezak, ezazu / *Begitarte*: aurpegi

Egia da, bikotekidea bilatzen baduzu horretarako aplikazioaren batean (edo tabernan, berdin dio), gure intereseko pertsona topatzean, lehenik eta behin alderdi fisikoari erreparatzen diogula (kasu honetan, esaerak "begitarte" aipatu duenez, gu ez gara sartuko bestelakoetan, egon badauden arren). Bada, jarrera hori egokia izan daiteke hasiera batean (nonbaitera begiratu behar da, aizue), baina gero ez: gero, baldin eta harreman hori indartzen bada eta konpromiso handiko fase batera iristen bagara, ezin gara soilik oinarritu bestearen itxuran, ez: pertsona hartu behar dugu kontuan, bere fazeta guztiekin (nortasuna, zaletasunak, pazientzia, adimena, prestutasuna, etika, printzipioak, iritzi soziopolitikoak... itxura fisikoa ahaztu gabe, zertarako engainatu geure burua?). Hau da, inor ez da ezkontzen aurpegi soil batekin (baietz, bada: anatomiaren atal gehiago aipa litezke, baina hori aipatu dugu jada azalpenaren 3. lerroan), ezpada pertsona osoarekin. Beraz, elkar ikusten dugun hurrengoan, ez ipini arreta soilik ene begitarte interesgarrian (nahiz eta ulertuko nukeen); hori baino askoz gehiago nauzu.

#### 42. EZ JOAN KANPORA, ZEURE SUKALDEAN DAUKAZUNAREN BILLA

*Billa*: bila, xerka

Denok dugu zerbaiten falta: amodioa, dirua, konfiantza, laguntasuna, aholkuak, laguntza, ideiak, sexua, berba onak, kritika eraikitzailea, sostengu emozionala...

Eta, sarri, urrun bilatzen ditugu horrelakoak (Interneten arakatuta edo AAri galdetuta, adibidez), konturatu gabe gure saritan inguruan ere, gugandik gertu, topa genezakeela hori guztia (familian, lagunengandik edo baita lankideen artean ere, esaterako).

#### 43. EZTAGON IRINAREKIN EZIN OPILIK EGIN

*Eztagon*: ez dagoen / *opil*: ogi modukoa, biribila eta txikia

Edozer egiteko, lehengaia behar da (horrexegatik da "lehen gaia", beharrezko lehen elementua delako). Adibidez, azalpen hauek ez dira posible esaera zaharrik gabe; EZT ezin da egin antolatzaile, musikaririk, bertsolaririk, laguntzaile edo parte-hartzaile gabe; eta kantek soinu politak eta letra interesgarriak izan behar dituzte (bueno, gaur egun hori ez da ezinbestekoa, ezta ohikoa ere).

Bestela pentsatzea fantasia da, amets hutsa.

#### 44. GANIBET BER BATEK DEBAKA OGIA ETA ERIA

*Ganibet*: labana, aizto / *Debaka*: ebakitzen du / *Eri*: atzamar

Tresna berberak ondorio onak zein txarrak eragin ditzake. Azalpen hauexek hartuko ditugu eredutzat: batzuentzat argigarriak izan daitezke, baina entretenigarriak ere; baina baten batek hartzen baditu Delfoseko orakuluaren berbatzat, (edozein) jainko(sa)ren mezutzat edo AIZU! aldizkariaren horoskopoztat, argi izan ezazue horrek amaiera txarra izango duela...

#### 45. GAREN ARTEAN, GAITEZAN IBILI

*Artean*: bitartean / *Gaitezan*: gaitzen

Bizi garen artean, mugi gaitzen; ahal dugun bitartean, egin ditzagun gauzak; mundu honetan gabiltzan bitartean, proba ditzagun existentziaren alde onak... Hemen gaudeino, erakuts dezagun bizirik gaudela. Zer irudi tristeagorik, bizi delarik hilda ematen duen pertsona baino?

#### 46. GOSE ANTZEAN IBILTZEA HOBE

*Antzean*: antzera, moduan

Denoi (edo gehienoi) gustatzen zaigu jatea, batzuk mizkinak badira ere. Hala ere, garai guztietako medikuak bat etorri izan dira esatean gehiegi jatea ez dela osasungarria (gaztelaniaz, *De grandes cenas están las sepulturas llenas* esan ohi dute), besteak beste osasun-arazo hauek ekar ditzakeelako: obesitatea, kolesterol altua, 2. motako diabetesa, besikula gaixotzea, minbizi-arriskua handitzea, hipertentsioa, tripako mina, urdail inguruko organoak presionatzea, nekea, apatia edo logura, gasak, garrastasuna sabelean, errefluxua, estres metabolikoa, beroa, izerdia eta zorabioak, erresistentzia intsinulari, goragalea, hatsa (ahoa), kontzentrazio eta arreta falta, memoria-galerak, eta —agian, larriena— aknea.

Horregatik, ez da komeni janari larregi irenstea, eta onuragarria da pixka bat gosetuta gelditzea. Bitxia bada ere, Japonian badute *Hara Hatxi Bu* (腹八分目) printzipioa (konfuzianismotik etorria), zeinak gomendatzen duen sabela % 80 beteta dagoenean jateari uztea. Beraz, badakizue: hobe apur bat gosebera geratzea.

#### 47. GU HILDAKOAN ERE, ASTOAK ERROTARA JOANGO DIRA

*Hildakoan*: hil eta gero

Maiz kontrakoa pentsatzen badugu ere, gu ez gara munduko zilborra; planeta eta gizartea ederto moldatuko dira gu desagertzen garenean (ere): denak berdin segituko du, salbu eta benetan maite gaituzten pertsonentzat\*. Alegia, ni

aienatzen naizenean, beste batek egingo ditu azalpen hauek (edo ez, berdin dio). Inor ez da ezinbestekoa mundu honetan, onar ezazue (ni onarpen-fasean nabil, kostatzen zait-eta).

Uste baduzue esaera gaurkotu beharrean dagoela, jada asto gutxi joaten direlako errotetara, arrazoi duzue; dena den, hori ez da funtsezko gaia.

\* Horiek ez dira asko izaten, ez engainatu zeure burua.

#### 48. GURASOEKIN ZU NOLA, ZURE UMEAK ZUREKIN HALA

*Karma* izeneko lege kosmikoan sinesten duzue? Printzipio espirituala da, kausalitate unibertsalaren legea, zeinaren arabera ekintza bakoitzak (pentsamendu, hitz edo egintza) ondorio bat dakarren. Hala, ekintza positiboek zoriona eta egoera onak sortzen dituzte, eta negatiboek sufrimendua. Hau da, ekintzak egilearengana itzultzen dira.

Ildo beretik, Jorge Drexlerren 2004ko kanta batek dioen moduan, "Bakoitzak ematen du jasotzen duena, eta gero jasotzen du ematen duena" (itzulpena gurea da).

Hortaz, zuk nola jokatzeko duzun gurasoekin, baliteke seme-alabek (baldin eta badituzu) horrelaxe tratatzea zu. Egia da? *Ideiaripez*, guk esaera azaldu besterik ez dugu egin...

#### 49. HAMAR GIZON ONETATIK, BEDERATZI AMAGATIK.

Pertsona on gehienak (azken ikerketa serioen arabera, % 90) beren amari esker dira onak (aitari buruzko daturik ez dugu, tamalez). Orain arte behintzat, amaren lepo joan izan dira etxeko lan asko eta asko (banaketa horren ondorioak asko dira genero-berdintasunaren aldetik, baina ez ditugu hemen aletuko, hau ez delako idazki serioa), eta hori, ziur aski, onerako da, jakina baita emakumezkoek hainbat bertute dauzkatela, gizonezkoek neurri txikiagoan dituztenak, eta horiek transmititzen dizkiete beren ondorengoei.

Seguru gaude zera ari zaretela pentsatzen, irakurleok: "Azalpen hauek idatzi dituztenek ez dute amarik, ala?". Galdera interesgarria da, benetan, baina ezin dugu informazio hori eman, gure konfidentziasun-klausula dela-eta.

#### 50. HIRE LEIHOTIK BEGIRA ZAK/N LEHENIK BARRENA

*Zak/n*: ezak/ezan (ezazu, hika)

Inoren hutsak bilatzen hasi gabe, nor bereak ikusi eta garbitu behar ditu lehendabizi. Inor ez da akatsik gabekoa –ez zu, ez ni, ez inor–, eta komenigarriagoa zaigu indarrak eta gogoia geure garapen pertsonalean erabiltzea, besteak kritikatzeko ibili beharrean.

#### 51. HORI DUK/N AMORRAIEI IGERIKA ERAKUTSI BEHARRA

*Amorraiei*: amuarrainei / *Igerika*: igeri egiten

Apaltasuna ez da hagitz bertute zabaldua gaur egun (ikusi Trump, Abascal, Milei eta beste hainbat, sinesten ez badidazue). Hala, jende askok oso estima handian du bere burua, eta uste du beste inork baino gehiago dakiela\*. Era horretan, pertsona batzuk iristen dira pentsatzera irakasleen irakasle ere izan daitezkeela eta amuarrainei ere irakats diezaieketela igerian. Inozoak!

\*Bururatu bazaizu(e) ni horietako bat naizela, agian, beharbada, menturaz eta ausaz baduzu(e) arrazoi apur bat, baina bakarrik apur bat.

## 52. IGAZKO KABIAK HUTSIK, EZ DA AURTEN TXORIRIK

*Igazko*: iazko; *Kabia*: habia

Ezer ez dagoen tokitik, ezin ezer atera (Gaztelaniaz, *Donde no hay mata, no hay patata*). Ekonomian, kapitalismozale itxurak eginda, esango genuke inbertsioa egin behar dela fruitua ateratzeko, ezerezetik ez baita ezer sortzen (kristauen, musulmanen eta judutarren Jainkoa da salbuespen bakarra); ekologian, esan liteke oraingo aniztasunari eutsi behar diogula naturak bere bidean aurre egin dezan... Hartu nahi duzuen moduan, baina gorde mezu hau zeuen buruan: orain dagoena suntsitzen badugu, etorkizunean ez zaigu deus ere geratuko.

## 53. IHABALIAREN EZPATAK, PUNTA MOTZ, AHOA LANPUTS

*Ihabali*: beldurti / *Lanputs*: kamuts

Beldurtiaren ezpatak punta motza du, eta aho kamutsa. Alegia, beldurti batek, eskuan armak edukita ere, ez dio aurre egingo arriskuari, ez delako gai izango bere izuari aurre egiteko.

Imajinatu eszena ikaragarri hau: EZT egunean, epaile batek ez-zuzentzat eman du talde baten erantzuna, "ta" esan dutelako "eta" beharrean... Alta, talde horrek ez du onartu nahi bere erabateko porrota, eta protestan hasi da, hasieran txilioka, gero epailea astintzen... Epaile horrek badaki legearen indar guztia duela bere baitan, eta bere dituela, halaber, azken hitza eta erabakia. Baina "Iso denok, epaile gisa zuei punturik ez ematea ebatzi dut, eta horrelaxe jasoko da dagokion dokumentuan!" adierazi ordez, eskuak dardarka, telefonoa hartu eta antolatzaile bati deitu dio, erdi negarrez: "Laguntza, snif, mesedez...!".

## 54. IKUSI NAHI EZ DU(N)ANA, BETI AURREAN

*Dunana, duana*: duzuna, hika

Matematikoa da: zerbait ikusi nahi ez duzunean (neska-lagun edo mutil-lagun ohia, hirugarren solairuko auzokide astuna, beti dirua eskatzen dizun sasi-laguna, aspaldi gaixorik dagoelako pena handia ematen dizun senidea\*, etengabe sexu-harremanak eskaintzen dizkizun neska/mutil ezin politagoa\*\*,...), hortxe agertuko zaizu maiz (salbu eta etengabe sexu-harremanak eskaintzen dizkizun neska/mutil ezin politagoa, noski).

\* baina gogoan izan 75. esaera...

\*\* txantxa da: horrelakorik ez da sekula egoten

## 55. JAIKI ZEN NAGIA, ERRE ZUEN HIRIA

*Jaiki*: altxatu / *Nagi*: lanerako edo egin behar dituen gauzetarako gogorik izaten ez duena

Nagiak (alferrak) ez dira mugitzen ezertarako ere (lerro hauek idazten dabiltzanek ezagutza sakona dute gai honetaz). Baina kontuz ibil zaitez alfer bat mugitzen hasiz gero: horrelakoetan, behin mugitzen hasita, edozer egiteko gai da!

## 56. JAINKOAK EZ BADU NAHI, SAINDUAK AHAL GUTI

*Ahal*: botere / *Saindu*: santu / *Guti*: gutxi

Bizitza honetan (eta, kristauen arabera, baita hurrengoan ere, benetan horrelakorik egonez gero), gutxi batzuek agintzen dute, eta besteok ez. Euskal Herrian, Europa katolikoan bezalaxe, aspaldiko ohitura komuna izan da eskaerak

egitea santuei (lana topatzeko, senargai edo emaztegai (ona, "garbia", leiala, polita, aberatsa, argia (baina ez gehiegi), langilea, jatorra...) lortzeko, seme edo alaba alferrak (edo ez oso azkarrak) azterketa garrantzitsu bat gainditzeko, soldaduskatik libratzeko, Athletic kopako finalera pasatzeko (edo ez pasatzeko), haurdun geratzeko (edo ez geratzeko), haurdunaldia ondo joateko (edo ez), loteria tokatzeko, 3. solairuko auzokideari zerbait (ez) oso larria gertatzeko, senideren baten gaixotasuna arintzeko (edo alderantziz), alabaren edo semearen bizitza matrimoniala hobetzeko...), trukean zerbait eskainita (ikus 71. esaera).

Alabaina, santuek ez dute batere botererik Jainkoak ez badu nahi, kristauen ustez benetako botereduna, ahalguztiduna, Jainkoa bera baita, eta santuek hari eskatzea besterik ez dute izaten, gizakien ezdeusen eta dibinitate ahaltzuaren arteko zubi-lana eginda. Gaztelaniaz esaten den moduan, "Donde manda capitán/a (edo patrón/patrona), no manda marinero/a".

#### 57. JOKARIA, BETI GALTZAILE

*Jokaria*: jokalaria, jokoan edo apustuetan ibiltzen dena (OHARRA: hitza ez da agertzen hiztegi gehienetan; hortaz, kontuz erabili, batez ere azterketetan; dena den, nork behar du "jokari" berba azterketa batean, e?)

Jokalaria, edozein joko-motatan, beti du galtzeko aukera. Azken batean, joko guzti-guztiak (etxeko edo euskaltegiko bingoak izan ezik) negozio dira, matematikoki diseinatuta daude etekinak emateko, eta antolatzaileek helburu bakarra izaten dute: dirua irabaztea; beraz, jokatzeko dutenek zerbait galdu behar dute, ezinbestean. Adibide moduan, Nevada estatuan (AEB), makina txanpon-jaleek jokatzeko diruaren % 75 gutxienez itzuli behar dute saritan (hots, ia % 25eko mozkina lortzen dute). Azken batean, adituek dioten moduan, zorte-jokoak dibertitzeko modua izan daitezke (betiere, neurrian erabiliz gero), baina sekula ez bizimodua.

#### 58. JOPUA ETA ADISKIDEA, EZ TXIRO EZ ABERATS

*Jopua*: morroi, zerbitzari / *Txiro*: pobre

Arazo bat duzunean, bi pertsona-motak lagundu ahal dizute: lagunak (maite zaituztelako) eta soldatapekoak (ordaintzen diezulako). Bada, ahal dela, ez da komeni bi jende-klase horiek ez (oso) aberatsak ez (oso) pobreak izatea. Zergatik? Diru asko badute (zuk baino gehiago), ez dira zutaz kezkatuko, ezer gutxi aterako baitute zuri lagunduta; aitzitik, oso baliabide gutxi badute (zuk baino gutxiago), beren beharrei begiratuko diete, beren gabeziei, eta zuri laguntzea bigarren mailako kontua izango da haientzat. *Nor bere zoroak bizi du* dioen arren atsotitzak, "Nor bere interesak mugiarazten du" esaera\* ere ez da gezurra. Zeu ere horrek mugiarazten zaitu? Aitor ezazu, lagunaren artean zaude-eta!

\* Berria da (badaezpada ere)

#### 59. KANPO EDER, BARREN HUTS

*Barren*: barrukoa

Aseguruen munduan, bi kontzeptu nagusi daude: edukitzailea ("continente") eta edukia ("contenido"). Lehenengoa etxea izan daiteke, eta bigarrena etxe barruan gordeta daukazuna (altxariak, elektrotresnak, harribitxiak, dirua, arte-lanak, komiki-bilduma...); biak inportantea dira, baina oso balio ezberdina izaten dute. Pertsonekin antzeko zerbait geratzen da: kontu bat da gure kanpoko itxura, besteek zer pentsatzen duten gutaz eta guk zer-nolako irudia (fisikoa, soziala,

politikoa, harremanetan...) ematen dugun; beste kontu bat da gure barneko errealitatea: benetan nolakoak garen geure baitan, zer dugun bihotz-arimetan. Bi alderdi horien artean alde handia egoten da, askoaz errazagoa delako kanpoko itxura zaintzea (inguruko jendea liluratzeko), barrukoa baino. Hartu 5 segundo eta egin autokritika: atsotitzak zure egoera islatzen du? Nik egin dut, hau idatzi bitartean... Ez dizuet ondorioa esango, pribatua da-eta.

#### 60. KANPOKOA ENTZUTEN DOZU GEHIXAU, ETXEKOA BAINO

*Dozu:* duzu / *Gehixau:* gehiago

Nire neskaren familian bi gurasoak (Begoña eta Berna) eta bi seme-alabak (Bego eta Javier) bizi ziren. Begok ni ezagutu aurretik (aspaldi, beraz), Javier Milarekin ezkondu zen. Bada, Bernabek sekula ez zion aholkurik eskatzen bere alabari, errainari baizik, inor ez daki zergatik. Gero, Mila eta Javier dibortziatu egin ziren, eta familia-burua (modu heteropatriarkalean esanda) konfiantzazko aholkularirik gabe geratu zen... baina hori beste istorio bat da.

#### 61. KEN UDATIARRARI BERE DIRU POZIA, BAINAN EZ BERRIZ JITEKO GUTIZIA

*Udatiar:* veraneante/a; estivant, -e / *Pozi:* poxi, apur / *Bainan:* baina / *Jiteko:* etortzeko

Ondo dago etekina ateratzea, baina pasatu gabe. Esaera hau Iparraldekoa da, non turismoak bide luzea egin duen gutxienez Napoleon III.a enperadorearen garaietatik (1852-1870 artean egon zen Frantziako tronuan). Horrenbestez, beraz, "euskal kostaldeko" ostalariak ondo dakite zer egin behar den turistekin (udatiarrekin): dirua kendu, bai; baina bueltatzeko gogoia utzi. Nola egiten den hori, horra hor turismo-adituen sekretu preziatua!

#### 62. LAGUNAK, INFERNUAN ERE GAUZA ONA

Argia da, ezta? Lagunak edonon dira beharrezko: parrandan, zineman, administrazioan (izapidetzeekin —paperekin— laguntzeko), gestoretan (errenta-aitorpena ikuskatzeko, esaterako), dendetan (zer erosi aholkatzeko), norberaren lantokian (giro ona izateko)... lagunak beti dira onak, baita tokirik txarrean ere. Arrazoi dugu, lagun maiteok?

#### 63. LAPIKO TXIKIAK, LASTER GAINEZ

*Gainez:* rebosar, desbordarse; déborder

Dena omen da proportzio-kontua: lapiko txikia oso polita izan daiteke, baina laster egiten du gainezka, barruan kapazitate txikia du-eta. Barrena husteko garaia denez, hona hemen nire esperientzia pertsonala: orain dela 10 bat urte, 36 taldek eman zuten izena EZTn, inoiz baino gehiago. Pentsa zitekeen itzelezko arrakasta izan zela, eta bazen, baina hainbat arazo ekarri zizkigun: 6 ibilbide antolatu behar izan genituen (beraz, ohi baino musikari, bertsolari eta epaile gehiago behar izan genituen), tabernak bete-beteta egon ziren eta tabernariak kexatu ziren, kostatu zitzaigun garagardotegien guztientzako lekua topatzen... Hitz batean, gure gaitasunaren ginetik aritu ginen (Fatima Bañez Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroak 2012an esan zuen moduan, "Espainiarrek (baita euskaldunok ere) ez dute beren erosahalmenetik gora bizitzerik").

#### 64. LAPURRE DIRU DAUEN LEKURE DOIE

*Lapurre:* lapurra / *Dauen:* dagoen / *Lekure:* lekura / *Doie:* doa

Bada, horixe: lapurrak dirua dagoen tokira joaten dira, eta ligatu nahi dutenak neska edo mutil ederrak (edo, behintzat, interesgarriak) dauden tokietara, eta

arrainak harrapatu nahi dituztenak ez dira joaten basamortura, eta ondo pasatu, euskal kulturaren murgildu, jende jatorra ezagutu eta euskaraz egin nahi dutenak, horiek EZTra joaten dira, normala den moduan. Bai, ezta?

#### 65. MARIGORRINGO: BIHER TA ETZI EGUZKIE EINGO

*Marigorringo*: marigorri, intsektu-familia (*Coccinellidae*), gorriak edo horiak dira, eta orban beltz txikiak dituzte hegaletan / *Biher*: bihar / *Eingo*: egingo  
Esaera honen gakoa hauxe da: "seinale". Bizitzak seinaleak bidaltzen dizkigu tarteka, batzuk onak, bestetzuk erdipurdikoak, asko txarrak... (bueno, norberak egin dezala banaketa, bere aldaratearen arabera). Esate baterako, eta ohiko adibidea jartzearren, une batean harreman sexualak izateko eskatzen badiozu bikotekideari eta ezetz esaten badizu "ezker eskuko hatz txikian" mina duelako (a, eskuina da bikotekidea), susma ezazu zerbait ez doala ondo (edo zuen harremana edo ohaidearen traumatologoarekiko komunikazioa). Antzina, jendeak askoz hobeto identifikatzen zituen seinaleak (eta gutxiagotan izaten zuen mina esker eskuko hatz txikian, baina hori beste istorio bat da), eta atoa harrapatzen zuen esanahia; hala, marigorringoak ikusiz gero, bazekiten eguraldi atsegina zetorrela. Gaur egun, *Eguraldia* saioaren zain egon behar dugu horrenbeste jakiteko (helduok), edo app bat daukate mugikorrean (gazteek) edo sekula ez dute jakiten zer-nolako giroa egingo duen (nerabeek).

Oh.: hori guztia, aldaketa klimatikoaren eta intsektizidaren gehiegizko erabileraren ondorioak kontuan hartu gabe

#### 66. MIHI LUZEAK, ESKUA LABUR

Asko hitz egiten duenak, normalean, gutxi ematen du. Hori horrela dela erakusteko eta ziurtasun osoa izan dezazuen, pentsatu dugu —eta hala egingo dugu, ez izan zalantzarik— izugarritzko azalpen osoa ematea esaera horren inguruan, zuen zalantza guztiak aienatu (desagertu) eta gure ondare kultural erraldoiaren zati txiki baina aldi berean garrantzitsua den atsotitz hori erabat argitzeko asmoz. Horrela, alderdi teorikoa ondo landu ostean eta zenbait adibide esanguratsuren bitartez —praktika eta teoria, teoria eta praktika, biak ala biak uztarturik ulertzen baitira ondoen gauzak—, egiatan iritsiko zarete erretratuaren ñabardura eta konnotazio oro ezagutzera, horrenbeste non beste edonori azaldu ahal izango diozuen laburki eta erraz, C2ko AEKko irakasle prestu eta prestatu baten gisan.

Prest?

#### 67. MINTZO DENEAN URRIA, IXILTZEN MIHIA

*Mintzo*: mintzatzen, hitz egiten / *Urria*: urrea (au) / *Ixiltzen*: isiltzen  
Quevedo (1580-1645) poeta madrildarrak idatzi zuen moduan, "Zaldun boteretsua da dirua". Urreak kendu eta ematen du arrazoia, guztioi gustatzen zaigu, eta (ia) denetarik eros daiteke harekin. Horregatik, urreak hitz egiten duenean, mundu guztiak onartzen du haren iritzia, eta mingainak isiltzen dira. Probatu duzue EZTko epaile bat sobornatzen? Ez da sekula gertatu (guk dakigula), baina gizaki bakoitzak ba omen du bere prezioa... Egia ote?

#### 68. NAHI DUNAK GEHIAGO EGITEN DU, AHAL DUENAK BAINO

*Dunak*: duenak

Gaitasuna baino, maiz prestasuna da garrantzitsua. Mesede bat eskatzen badiezu bi pertsonari, nork lagunduko dizu gehien: ahal duenak ala nahi duenak? Argi eta

garbi dago: nahi duenak laguntza handiagoa emango dizu, gogoz ariko da-eta. Besteak, gaitasuna izanda ere, ez du gauza handirik egingo, borondatea faltako baitzaio (baten batek damua-edo sentitu badu hau irakurtzean, ez da hori izan gure asmoa, baina pozten gara).

#### 69. NEGARRA LIBRE DA

Seguru inoiz entzun duzuen "emozio-kudeaketa" kontzeptua. Ez dugu ezer esango horren kontra (horretarako, zerbait jakin beharko genuke, izenaz gain), baina kontu bat argi dago: gauza batzuk kontrola daitezke, eta beste batzuk ez. Negarra (barrea bezala, paradoxikoa bada ere) ezin da erraz bezatu (*domesticar*, *domestiquer*), eta, agertzen denean, atea ireki behar zaie, ezin baita gerarazi.

Horregatik, negar egiteko gogo duzunean, egiozu negar eta kito. Salbuespen bakarra EZTn dugu: ez negar egin esaera bat ez duzelako asmatu; horren ordez, ikasi gehiago hurrengorako!

#### 70. NON ZALDARRA, HAN ATZAMARRA

*Zaldar*: pikorta, garau, "grano" / *Atzamar*: hatz, eri

Nahikoa da arazotxo bat izatea, edo min txiki bat, edo ahulguneren bat, mundu guztiak horrixerretarako eta horrexetan tematzeko. Asmo txarrez egiten dute? Baliteke...

#### 71. NORI, NOLA MINTZA

*Mintza*: mintzatu, hitz egin, berba egin

Testuinguruaren arabera jokatzeko da zentzuzkoena; hortaz, ondo pentsatu nola hitz egingo diozun aurrekoari. Kontuan hartu nor den, zer dakien, nolakoa den, zer entzun nahi duen, zer espero duen zuregandik... Izan ere, ez da gauza bera 5 urteko ume bati berba egitea, horren amari, edo horren aitaitari... Edozein hizlarik daki bere hizkera moldatu behar duela entzuleen ezaugarrietara: euskalkia/batua, abiadura, tonua, erregistroa (lagunartekoa, jaso, neutroa)... Mundu guztiari ezin zaio (ez da komeni) berdintzat mintzatu. Aitu'alde/n?

#### 72. NUN-NAHI DAGO ZERBAIT

Nun-nahi: non-nahi edo nonahi, edonon

Bada, horixe: edonon dago zer edo zer. Hots, edozein tokitan topatuko duzu zerbait, askotan interesgarria. Basamortuetan badaude gauzak, baita Ipar Poloan ere. Are gehiago, zure ariman ere egongo da zerbait, ondo bilatuz gero. Beraz, hutsune existentziala sumatzen baduzu zeure baitan, nonbait dago konponbidea (apika, zure barnean bertan, batek daki!).

#### 73. OGIA LEHENAGO, ORA BAINO

*Or*: txakur

Lehentasunak oso inportanteak dira bizitzan (gero, "bigarrentasunak" datoz, A. Otegik dioten moduan). Eta, egia esanda, aukeratu behar bada janariaren (metaforikoki, "egia") eta luxuen artean (adibidez, gaur egun, etxeko abere edo maskotak), bada, argi dago denok egingo genukeela janariaren alde, maskotei zor zaien errespetu guztia ahazteke, noski. Baten batek erantzungo dit garai batean (eta oraindik ere, lekuren batean) orak edo txakurrak ezinbestekoak izaten zirela (direla) piztia batzuen ehizarako; egia da, bai, baina ehiza ere ez al da, batez ere gaur egun, luxuzko ariketa (konnotazio etiko-moraletan sartu gabe)?

#### 74. OHEAK GAZTEA AZKARTZEN, ZAHARRA AHULTZEN

*Azkartu*: indartu, bizkortu, sendotu

Oheak, lo egiteko edo etzanda egoteko altzari horrek, ez du ondorio bera sortzen pertsona guztiengan. Batzuei (azkarrei, gazteei), laguntzen die indarra berreskuratzen; besteei, aldiz, energia xurgatzen die. Ziur aski, neurrian dago kontua (bizitzaren arlo orotan legez): abusatuz gero ia dena da txarra (esaera zaharrak izan ezik, noski, jakina eta prefosta).

#### 75. OIZKO TRUMOIEK ZARATA HANDIDXE, BAI A EURI GITXI

*Oiz*: Bizkaiko mendia (1026 m) / *Handidxe*: handia / *Baia*: baina / *Gitxi*: gutxi  
Itxurak, askotan, faltsuak izaten dira. Guk irakurri dugun moduan, esaera hau senide batek kontatu zion Adolfo Arejita euskaltzainari. Diotenez, sarri geratzen da eztegu handiosak ospatzea Bizkaiko herri batzuetan: gonbidatu ugari eta izen handikoak, musikariak, auto handiak... baina, gero, oturuntzan, janari gutxi egoten da behin baino gehiagotan.

#### 76. ON EGITEN GEZURRA, EZ DA MAKURRA

*Makur*: txar, gaizto, akats

Mota askotako gezurrak daude: besteak beste, on egin nahian botatakoak. Horrelakoak, antza, ez dira berez txarrak. Dena den, EZTk gutuna bidaliko du egunotan Vatikanora ("Fedearen Doktrinarako Dikasterioa" izeneko batzordera, hain zuzen), argi diezaguten ea esaerak egia dioen ikuspuntu kristautik (musulmanen eta judutarren kasuan, aitor dezagun, ez dakigu nora idatzi).

#### 77. ONDARROA ETA MOTRIKU, IDIAK IDIA AURKITU

Ohikoa da auzo-herri bi txarto konpontzea elkarren artean, aspaldiko gaizki-  
ulertzeengatik eta/edo interes ekonomikoengatik; hala gertatu zen antzina Erromaren eta Kartagoren artean, eta gero beste mila bider: Ginoa/Venezia, Frantzia/Alemania, Irlanda/Ingalaterra, Gaztela/Nafarroa eta ondoren Espainia/Euskal Herria edo, oraindik ere, palestinarren eta israeldarren artean. Hori bai, esango nuke (iturri historiografikoak arakatu gabe, aitortzen dut) euskal kostaldeko bi herri horien arteko talka ez dela inoiz horren bortitza izan.

#### 78. OTSOAK ETA ORAK AHUNTZAREN HARAGIAZ BAKE

*Or*: txakur

Politikan, behin baino gehiagotan, potentzia handiek euren arteko tratuak egin izan dituzte herrialde ahulen lepo. Adibide batzuk ematearren, Gaztelak eta Portugalek munduaren mendebalde osoa (Amerika barne) "zatitu" zuten 1494an, Tordesillasen (Valladolid); Gaztelak eta Aragoik bat egin zuten Nafarroa konkistatzeko 1512an; 1884-85 artean, Berlingo konferentzian, estatu europarrek Afrika ia osoa zatikatu eta berenganatu zuten (handik gutxira, Liberia eta Etiopia baino ez ziren independenteak); 1916an, Frantziak eta Britainia Handiak Asiako mendebaldea banatu zuten euren artean Sykes-Picot akordioaren bitartez (Siria eta Libano, Frantziarentzat; Palestina\*, Jordania, Kuwait eta Irak britainiarrentzat; Kurdistan, bistan da, ahaztu egin zuten guttiz); Polonia hainbatetan xurgatu dute ondoko potentziek: 1772an, Austria-Hungariak, Errusiak eta Prusiak; 1939ko abuztuaren 23an, Sobiet Batasunak eta III. Reich-eko Alemaniak, Molotov-Ribbentrop Itunaren bidez; azkenik, eta dudarik gabe, larriena, Itzubaltzeta herria (gaztelaniaz, Romo) Leioa eta Getxo artean dago bananduta, askatasun-eguna noiz iritsiko zaion zain... Andorra, Monako, Liechtenstein eta Luxenburgo dira salbuespen, herri handien artean egonda ere beren autonomia gordetzen jakin dute-eta.

\* Badakizue zer etorri zen gero erabaki horren ondorioz, ezta? Izan ere, otsoak eta orak onak dira gerrak pizten, baina ez horren abilak bakea eraikitzen...

#### 79. PIXKE TA PIXKE, PUSKE

*Pixke*: pixka (Kopuru txiki, apur) / *Puske*: puska (zati)

Pixka askok, bilduta, puska handia egiten dute. Gogoan duzue Lola Floresen ideia bitxia? 1987an, Espainiako Ogasunak salaketa jarri zuen haren aurka, 47 milioi pezetako iruzurra egin zuelakoan (egungo 282.475,69 €). Garai hartan Espainiako Estatuak 40 bat milioi biztanle zituen, zera esan zuen *bailaora* famatuak: "Espainiar bakoitzak pezeta bat bakarra emango balit, ordain nezake zorra" (horregatik, batzuek diote hark asmatu zuela "crowdfunding" sistema).

#### 80. POTIA POTE, NAHIZ PIPAR DA NAHIZ TOMATE

*Pipar*: piper / *Da*: eta

Lehengusina etorri zaizu bisitan Santoñatik (Kantabria, Espainia), eta, ohi bezala, zerbait ekarri dizu erregalu gisa: pote bat. Zuk, gutiziaz, papera kentzen hasi zara (paperean bilduta eman baitizu zure osabaren alaba jatorrak), ia utzikieriaz —ekintzari garrantzia kendu nahiko bazen bezala, garunek "ummmm, antxoak!" dioten bitartean—. Orduan, zure begiek, sinetsi ezinean, deskubritzen dute potearen barruan ez dagoela "*Engraulis encrasicolus*" alerik, baizik eta "*Thunnus alalunga*" arrunta (hots, antxoa amestuak hegaluze ez-desiratua bihurtu dira errealtatean). Bada, agoanta zaitetz! Opariei ez diegu akatsik atera behar, eta aski da bezuzak jasotzea pozik egon gaitezen. Gaztelako erdaraz esaten duten moduan, "A caballo regalado, no le mires el diente" (batik bat, zaldiaren autoestimua ez mintzearren; batez ere, hortz bakarria badu).

#### 81. SAN ANTONIO, SAN ANTONIO, TXARRIA GAIXO DANEAN

*Txarri*: txerri / *Danean*: denean, dagoenean

Soilik kezkatzen gara egoera okertzen denean, ez gauzak ondo doazkigunean. Hala, etxeko txerria gaixotuz gero (ez da beharrezkoa azaltzea urdea oso elementu garrantzitsua zela baserritarren ekonomian eta elikaduran), hor hasiko ziren San Antoniori erreguka —Paduakoari ez, Anton abadeari (Egipto, K.o. 251-356)—, hura animalien babeslea da-eta. Aitzitik, Azkuek atsotitzari buruzko komentarioan ondo dioten moduan, inork ez du "San Antonio" esaten odolosteak jatean, orduan ez dagoelako arazorik. EZTn, modu berean, ezein talde ez da kexatzen epaileak ontzat ematen badu euren erantzuna, baina txartzat hartuz gero...

#### 82. SAN MARKOS ASTEA, ARTOA EREITEKO ASTEA

San Marko Ebanjelariaren egunaren inguruan (apirilak 25), egokia bide da artoa ereitea, gure herri-jakinduriaren arabera. Alegia, garai aproposak egoten dira ekintza batzuk egiteko, eta, epe horren aurretik edo ostean, ez da komeni edo ez du merezi. Adibidez, EZT apirilaren 5ean ospatzen bada (larunbata), martxoaren 29tik apirilaren 4ra ikasi behar dira esaerak, ez lehenago (ahaztuko zaizkizuelako, batez ere gazteoi, memoria oso kaltetuta duzue-eta eskuko telefonoen eta pantailen erruz), ezta geroago ere (behin txapelketa eginda). Hortaz, argi gera bekizue: gauza bakoitza bere garaian egin behar da.

#### 83. SANTANDER, ABERATSAK ONDO TA POBREA LANDER

*Ta*: eta / *Lander*: pobre

Munduko ia edozein tokitan (pentsatu nahi dugu Amazoniako bazterren batean ez dela horrela izango, zuriak edo kristauak han agertu arte behintzat), klase sozialak existitzen dira; eta denok dakigu boteretsuek aberastasuna pilatu ohi dutela, besteei nola edo hala dena kenduta. Bada, mundu osoan dirudunak ondo bizi dira, eta pobreak ez horren ondo. Bi aukera daude azalpena amaitzeko:

a) Euskal Herriko Langileok! Anai-arrebok! Batu eta antola gaitezen kapitalismo inperialista totalitario zikinaren aurka borrokatzeko! Gurea da garaipena! (amaiera politikoa).

b) EZTn berdin dio pobrea edo aberatsa zaren; EZTn denak hartzen ditugu berdin, besoak zabalik, euskarak batzen gaituelako, Korrikaren leloak dioen moduan, denok euskara garelako. Zatozte guregana, anai-arreba euskaldunok: gurean ez da bazterkeriarik, ez arbuiorik, ez gizarte-ezberdintasunik (amaiera bukolikoa).

#### 84. SOINUAK POZTUTZEN EZ DU(E)NA, EZ DA PARTE ONEKOA

*Poztutzen*: pozten / *Parte oneko*: behar bezalakoa

Alegia, musika gustatzen ez bazaizu, printzipioz, "bitxo arraroa" zara, ez oso fidagarria. Egia esatera, musika oso ondo baloratua izan da beti; adibidez, Antzinako Grezian, Wikipediak dioen moduan, musika arte jainkotiar eta nonahikoa zen, funtsezkoa hezkuntzan, antzerkian, erlijioan eta gizarte-bizitzan. Hortaz, musikazalea ez bazara, ez etorri EZTra, han ez dugu jendilajerik nahi (gutaz aparte, erran nahi baita).

#### 85. TIPIAN IKUSIA, BETIKOTZ IKASIA

*Tipian*: txikitan / *Betikotz*: betiko

Txikitan ikusten eta ikasten duguna betiko geratzen zaigu iltzatuta burmuinean. Guri, behintzat, hala gertatu zaigu hainbat kontutan.

#### 86. TXAKUR HAUNDIARI, OKELA; TXAKUR TXIKIARI, MAKILA

*Haundia*: handia

Aberatsei (metaforikoki "txakur handi") harrera ona egiten zaie, opari eta guzti; pobreei ("txakur txiki"), aitzitik, tratu txarrak besterik ez zaie ematen: destainak, irainak eta erdeinuak besterik ez. Horrela egiten duzue zeuek ere, ohar (ustez etiko) hauen irakurleok? Aztertu, miatu, arakatu ondo zeuen bihotzak, jakin dezazuen egiatan bide onean zabilzatenetz ("zabilzaten ala ez").

#### 87. TXARRAK GARAILE IZAITEKO, ONAK DEUS ERE EZ EGITEA NAHI

*Izaiteko*: izateko / *Deus*: ezer

Pertsona gaiztoek, beren helburuak lortzeko (horiek ere gaiztoak, logikoki), zera nahi/desiatzen dute: pertsona onek ezer ez egitea, geldi egotea. Martin Niemöller apaiz luterano alemaniarrek bere poema ospetsuan ezin hobeto adierazi zuen (bide batez, nik uste nuen Bertolt Brecht-ena zela; a, euskarazko bertsioa Wikipediarena da):

*Lehenbizi komunisten bila etorri ziren, eta ez nuen ezer esan,  
ez bainintzen komunista.*

*Ondoren juduen bila etorri ziren, eta ez nuen ezer esan,  
ez bainintzen judu.*

*Ondoren sindikalisten bila etorri ziren, eta ez nuen ezer esan,  
ez bainintzen sindikalista.*

*Ondoren, katolikoek bila etorri ziren, eta ez nuen ezer esan, ez bainintzen katoliko.*

*Azkenik nire bila etorri ziren, eta jada ez zegoen inor nire alde mintzatzeko.*

Horixe da, bada, gizabanako zitalen apeta: jende onak protestarik ez egitea haiek barrabaskeriak egiten dituzten bitartean. Orain, funtsezko bi galdera baino ez dira falta: zuek onak ala gaitztoak zarete? Eta ni, zer ote naiz ni?

#### 88. UKALONDOARI MUN EIÑ GURARIK BIZI

*Mun eñ: musu egin, musukatu / Gurarik: nahian*

Aitortu egia: inoiz saiatu zara zeure ukalondoa musukatzen? Erantzuna baiezkoa bada (% 94,32), honezkero jakingo duzu ezinezkoa dela. Bada, tontakeria da (gogorregia al da "ergelkeria"?), kontu ezinezkoak desiratzen bizitzea: izan ere, frustragarria da (tristea ez esatearren) eskuratu ezin den hori desiratzea. Honekin guztiarekin esan nahi dugu ezin dela amets egin, adibidez, Euskal Herriaren —6 edo 7 lurralde diren, beste batean ebatziko dugu— independentziarekin edo, are zailago, euskal literaturan pornografia, odola eta gordinkeria agertzearekin? Ez, inondik inora ere ez: amets egitea libre da, baina kontuz ibili, denok ez baitugu gaitasun berdina frustrazioari aurre egiteko.

#### 89. ULERLE ONARI, BERBA GITXI

*Ulerle: ulertzen duena / Berba: ele, hitz / Gitxi: gutxi*

Eraz ulertzen duenari, gauzak labur azaldu. Aski da horrela; bai, ezta?

#### 90. UR HUTSAK, BIZIA LUZATU

Denok dakigu edari alkoholodunak txarrak direla osasunerako, kaloria asko edukitzeaz gain, hainbat gaitz sor ditzakeelako: presio arterial handia, bihotzeko gaixotasunak, istripu zerebrobaskularrak, gibelesko eritasunak, digestio-arazoak eta hainbat minbizi-mota (bularrekia, ahokoa, eztarrikia, laringekoa, esofagokoa, gibeleskoa, kolonekoa eta ondestekoa); kafea eta tea ere ez dira askoz hobekak: kitzikagarriak dira eta, beraz, azaroak ekar diezazkigukete lo egiteko edo digestio-aparatuan; edari azukredunak ere ez dira gomendagarriak, medikuek behin eta berriro esaten duten moduan... Zer geratzen zaigu edateko? Ura (H<sup>2</sup>O). Ura bakarrik edango bagenu, luzeago biziko ginatke... Aspertu ere bai, jakina.

#### 91. URRUTIREAN BOLURA DATOR URA

*Urrutirean: urrutitik / Bolu: errota*

Ura ez da errotan sortzen: hara ailegatu aurretik, ibilbide luzea du egina. Lasai, ez dizuegu azalduko uraren zikloa, (teorian) eskolan ikasi zenutelako gaztetan. Esaera honek esan nahi du gertatzen den orok historia luzea izaten duela atzetik, aurretiko erroak. Hala, israelarren eta palestinarren arteko borroka ez da atzo goizekoa, ezta kurduen eta pertsiarren/arabiarren artekoa ere, edo, gertuago etorrita, euskaldunon eta espainiarren artekoa... Jazoera guztiek dituzte aurrekariak, eta azalpenak iraganean ezkutatuta egoten dira; horien bila aritu behar da, baina mundu guztia ez da prest egoten. Alferkeriagatik ote?

#### 92. UZTAILEAN, IGITAIA ESKUAN

*Igitaia: uzta biltzeko edo belarra ebakitzeko lanabesa, komunistentzat mailuaren lagun mina*

Behin, Picassok esan omen zuen: "Inspirazioa existitzen da, baina topatuko ahal zaitu lanean!". Alegia, tresnak momentu jakin batzuetan behar ditugu, ez beti

(bide batez, Amets Arzallusek maiz esaten du bertsoz onenak autoan doala bururatzen zaizkiola). Horregatik, noiz izan behar dugu igitaia eskuan? Bada, uzta-garaian (a zer kasualitatea: uztaila = uzta-hila!).

### 93. XAPELIK HANDIENAK EZTU BURU HUTSIK BETETZEN

*Xapel:* txapel / *Eztu:* ez du

Arropak, kanpoko itxurak oro har, ezin ditu gure gabeziak estali. Munduko orrazkerarik konplikatuena erakuts dezakezu, inoizko zapatarik garestienak jantzi edo Europa osoko azazkalik luzeenak eduki (Ameriketako luzeagoak egongo dira, seguru), baina tontoa/tuntuna bazara, inguruko guztiak zure eskasiaz konturatuko dira zuk ahoa zabaldu bezain pronto (baldin eta haiek ere zu bezain tontoak/tuntunak ez badira, jakina; kasu horretan, arazorik ez).

### 94. XORIA EZAGUN DA LUMATIK

*Xori:* txori / *Ezagun da:* ezagutzen da

XXI. mendeko gizakion ideia finkoa da dena sailkatzea, ohitura horren sustraiak zaharragoak badira ere (Lineo zientzialari suediarra (1707-1778) edo Darwin ingelesa (1809-1882) esaterako, inor aipatzearen). Norbait/inor klasifikatzeko orduan, parametro batzuk errazagoak dira: itxura, adibidez. Hala, loreak oso argigarriak dira landareetan, begien kolorea gizakiengan eta —horaxe ailegatu gura genuen hasieratik, nahiz eta inor ohartu ez— lumen kolorea txoriengan. Esate baterako, "zozo" bilatuz gero Euskal Wikipedian, zera agertzen da 4. paragrafoan: "Arra **beltza** da, moko eta begiko eraztun horiarekin, eta emea **arrea**, kontraste gutxiagoko moko eta begiko eraztunarekin". Hara zein garrantzitsua den lumen kolorea hegaztiak deskribatzeko orduan!

### 95. ZALDABE BERRIK, SOINU ONA

*Zaldabe:* pandereta / *berrik:* berriak

Normalean, tresna berriek ondo funtzionatzen dute; gero, denborak eta erabilerak narriatzen dituzte, higatzen.

Pertsona bakan batzuekin, baina, alderantziz gertatzen da: zenbat eta esperientzia handiagoa izan, orduan eta ezagutza zabalagoa. Lasai, ez naiz neure buruaz ari. Zuetaz ere ez, seguru aski.

### 96. ZILARDUNA, URRE GOSE; URREDUNA, SEKULAN EZIN ASE

*Zilarduna:* zilarra duena / *Urreduna:* urrea duena / *Ase:* bete

Daukagun baino gehiago nahi izaten dugu, eta, zenbat eta gehiago eduki, orduan eta gehiago nahi izaten dugu. Eta, okerre dena, guztia dugunean ere ez gara konforme garatuko. Adibide *tonto* bat jartzearren, ikusi 2025eko Ameriketako Estatu Batuak: lehen potentzia mundiala izan arren (目前 "momentuz"), Groenlandia, Kanada, Panamako kanala, Ukrainako "lur arraroak", NATOko kideen BPGaren % 5 (beren) armetan gastatzea eta beste mila kontu nahi dituzte, eskatzea libre delakoan.

### 97. ZORITXARRAK, IRAKASTEN; ZORIONAK, ERGELTZEN

*Ergeltzen:* ergel bihurtzen

Akats eta arazoetatik ikasten da; egoera onetatik, aitzitik, ez da ikasten, eta, okerragoa dena, ohitzen gara... Hortik ondoriozta daiteke hobek direla une txarrak? Ez, neska/gizona! (baina txarrak aprobetxatu behar dira zerbait ikasteko).

### 98. ZORNOTZA, HANGO JENTEEN ZOR HOTSA

*Jenteen*: jendearen

Historian zehar, zornotzarrek txiro-fama izan dute, batek daki zergatik. Euskal Herrian, Espainiako Estatuan eta mundu osoan ohikoa izan da herri bakoitzak epitetoak asmatzea gainontzekoentzat; hala, katalanak eta eskoziarrak zuhurrak omen dira; andaluziarrak, alferrak baina umoretsuak; alemaniarrak, langileak eta diziplinatuak (eta baten bat, faxista)... Gu euskaldunok, nolakoak gara besteen iritziz? Bada, La Razón egunkari espainiar politikoki neutralaren arabera, guk denbora guztian hitz egiten dugu euskaraz (gainera, gure hizkuntza ikastea ezinezkoa da kanpokoentzat); adituak gara gastronomian, eta ondo kozinatzen dugu; izaeraz, serioak, apur bat zatarrak eta ez oso adierazkorrak gara, baina hitzekoak; indartsuak gara, eta herri-kirolak maite ditugu; gure abizenak luzeak eta ahoskatzen zailak dira; gure lurraldean, egunero egiten du euria, eta zerua beti egoten da hodeitsu...

Topikoak topiko dira, baina den-dena ez da gezurra izaten, ezta?

#### 99. ZUHURRAK ENTZUN, IKUSI ETA ISILDU

*Zuhur*: prudente; prudent, -e

Pertsona zentzudun edo burutsuek (alegia, zentzua dutenek edo burua erabiltzen dakitenek) ez dute hitz asko botatzen; kontrara, nahiago izaten dute besteen iritzia jaso eta gainontzekoen ekintzak antzeman. Galderak egiten dituzte, ingurukoek usteak ulertzeko, baina ez zaie gustatzen beren pentsamendua azaleratzea. Zu horrelakoa zara? Hots, zuhurra zara? Ni ez bereziki, baina nahi nuke.

#### 100. ZUME HAUEKIN SASKI HAU BAINO EZIN DA EGIN

Zume: saskiak egiteko erabiltzen diren adar malguak

Zerbait egiteko, osagai egokiak eduki behar dira eskura. Adibidez, bi arrautza, olio eta gatza besterik ez badut, tortilla/arrautzopil/moleta hutsa egin beharko dut, nahitaez. Antzeko zerbait gertatzen da gure lehiaketarekin: zuen moduko parte-hartzaileekin, sekula ez dugu lortuko Euskaltzaindiak beso zabalik babestea gure ekitaldia (are gutxiago UNESCOk "gizateriaren ondare immaterial" izendatzea\*...).

\* Bale, berriro jarri gara oniriko...